

BIZITZA

«Kirikiño» ezizenez ezagutzen dugu gaur egun denok Ebaristo Bustintza Lasuen izan zena. 1866ko urriaren 26an Bizkaiko Mañaria herrian jaioa, «Etxanoa» izeneko etxean, Ebaristok zazpi urte zituela familia osoa kale berean dagoen «Zumelaga» etxera aldatu zen.

Lehen mailako ikasketak herriko eskolan egin ondoren, Durangon jarraitu zuen ikasten. Berrero ere familia osoa 1878an Almansara (Albacete) aldatu zenez, han egin zituen Batxiler-mailako ikasketak, beti mutil argia zetorrela erakutsiz. Bide Injenieri izateko asmoz Madrilera joan zen; baina, hasierako asmoari uko eginez, Zientzi Fakultatean burutu zituen Fisika eta Matematikako ikasketak. Madrilen ikasten ari zen bitartean, ikasle talde batekin zegoen ostatur. Ikasle hauen arteko bat zen Miguel Primo de Rivera, eta baita Martzelo Torrontegi ere. Honekin egiten zituen solasaldiek lagundu zioten Kirikiñori bere euskaltzetasuna bizten.

EBARISTO BUSTINTZA LASUEN "KIRIKIÑO"




2

Lizentziatura atera eta laster Sigüenzan hasi zen Matematika irakasten, 1899an Bilbora itzuli zen arte. Harez gero bertan finkatu zen. Gran Vía-n zegoen «Sociedad Minera de San Antonio de Montellano» lantegian zuen kargua euskarazko lanak egiteari eskaintzen zion denborarekin tartekatuz. Lan honetan hasi zen urte berean, 1909an, bere iloba zen Basili Bustintza Ozerinekin ezkondu zen. Ez zen ezkontza honetatik seme-alabarik jaio.

ETXANOA ETA ZUMELAGA

Mañarian jaio eta hil zen «Kirikiño» idazlea, nahiz eta urterik gehienak (1878tik aurrera) kanpoan eman, ikasten edota euskal lanetan. Etxanoa izan zuen jaiotetxe (eskuineko lehenengoa), eta Zumelaga, bere heriotz etxe (hirugarrena), biak elkarren ondoan, etxe bat tarteko.



Bilbora etorri eta berehala hartu zuen R. M. Azkuek *Euskalzale* aldizkarirako laguntzaile. Aldizkari honetan, hain zuzen ere, argitaratu zuen bere lehenengo idazlana. Handik aurrera, aldizkari, egunkari eta lan ezberdinetan ihardun zuen, beti Bilbon bizi zela. Baina, lana uzteko ordua heldu zitzaionean, Mañariara bihurtu zen, 1928an. Ez zion luze iraungo zahartzaroko erretiroaren atsedetak, 1929ko urtarrilaren 31n hil bait zen, «Zumelaga» etxean. Hil aurreko egunetan, etxeko baratzean zebilela, laban egin eta erori egin zen eta, antza denez, hortik etorri zitzaion heriotza.



AMA

Juliana Lasuen Agirre -Abadinoko alaba- izan zen Kirikiñoren ama.

GARAIKO EUSKAL KULTURA ETA GIZARTEA

XIX. mendearen azken hamarkadetak, euskal kulturaren esparruan berrikuntza eta «berbizkundera» gertatzen ari ziren. Euskal Herriari Foruak kendu zizkietenetik, euskal abertzaleek hizkuntza, euskara, hartuko dute euskalduntasunaren ezaugarri nagusitzat, ondorioz, euskarazko idazlanak, kazetari-lanak, sariketa eta lehiaketak ugarituz.

Esan bezala, guzti hau lehendik bazetorren ere, XIX. mendearen hasieran gauzak bideratzen hasiko dira. Sabin Arana Goiri buru dela, «Euzko Alderdi Jeltzalea» sortuko da, eta 1901etik aurrera indarrean arituko. Alderdi honen ikurra, «Jaungoikoa eta Lege Zarra» izango da, eta komunikabidetzat erabiliko duten tresna, euskara.

ALMANSAN (1878)

Artean-gaztetxoa zela, familia osoarekin, Albacete-ko Almansa-ra joan zen bizitzera, lehendik ere hiri hartan bait zituen osaba apaiza eta izeba bat. Han egin zituen lehen ikasketak ere. Argazkian, osaba abadea.


Nazionalismoak hizkuntza eta euskal literatura indartzeko ahalegin handia egin zuen. Horrez gainera, ahalegin hau pentsakera eta proiektu politiko bati lotuta zegoenez, sendoago errotu zen gizartean. Baina «berbizkunde euskaltzale» honek euskara «garbia» sortu zuen, kanpotar jatorriko hitzak baztertu eta haien ordeaz berba asmatu-berriak erabiliz, horren ondorioz euskaldun arruntek ez ulertzeko moduko testuak sortuz.



Jokabide honi lotu zitzaizkion belaunaldi osoko idazle gehienak, baina literatura gutxi batzuentzat gelditzen zen, oso zaila eta landuegia zelako.

Kirikiño dugu salbuespen ia bakarra jokabide honetan. Kirikiñok beti herriko jendea gogoan hartuta idatzi zuen, berak zioenez, ez ehun urte geroagoko jendearentzat, euskaraz ikasiak izango zirenentzat, bere garaiko euskaldun arruntentzat baino. Beraz, euskara garbiaren joera orokorra alde batera utziz, herriko jendeak erabiltzen zituen hitz eta esakerak izango dira ugarietak haren lanetan: edozein jatorritakoak izanda

ere, herrian errotuta dauden ala ez izango da harentzat hautapen-irizpidea. Jarrera honen balio eta garrantzia, denek aitortu zituzten arren, ez zuen jarraitzalerik izan.



IKAS-LAGUNEKIN

Ebaristo gaztearen ikasketak erbestean burutu ziren. Goi-ikasketak Madrilan egin zituen. Hona, lagun izan zituenak bi argazkitan bilduta. Miguel Primo de Rivera-ren ostatu-lagun izan zen, eta etxe berean ezagutu zuen Martzelu Torrontegi, Ebaristo euskaltzaletu zuen laguna. Argazkian, eskuinetik bigarrena da Primo de Rivera, Kirikiñoren ezkerretara dagoena.

1919ko irailaren amaieratik aurrera *Euzkadi* egunkarian, «Euskaltzaindia» eratu berria zela eta, eztabaida nahikoa zorrotza sortu zen. J.M. Oyarbidek eta G. Muxikak artikulu batzuk idatzi zituzten, «Euskaltzaindia» goratuz, erakunde horrek hizkuntzari buruz hartuko zituen erabakiak bete beharrekoak izango zirela esanez. Kirikiño nahikoa gogor erantzun zien, gai horietan berak bere iritzi eta kriterioak zituela adieraziz, eta, Euskaltzaindiak erabakiko zuenarekin kritiko izateko eskubidea aldarrikatuz. Hau da, ez ziola denari men egingo Euskaltzaindiak esana bazen ere. Bustintzaren ustez, Sabin Arana eta haren jarraitzaileen arauak eta idazteko modua beste idazle batzuek kritikatu zituzten era berean, Euskaltzaindiaren erabakiak aztertu egin beharko ziren eta ez astoen moduan itsu-itsuan jarraitu:

Geure adimena sustarretik ebai, guramenaz batera, ta ezin geinkijoe «Academia Vasca» orretan ipiñi dabezan gixonai. Geure asimena geuria da, Jainkua'k emona, ta erabilteko emona, ez geldi eukiteko (...)

EMAZTEAREKIN

Adinekoa zela, Kirikiño bere iloba batekin ezkondu zen (1909), Basilia Bustintza Ozerinekin (1889-1972). Berau, alargunduta (1929), berrogei eta gehiago urtetan bizi izan zen, eta gerora idazle-lanik ere eman zuen, olerkiak batez ere. Argazkian, osabalok ezkondu ziren eguneko eztegu-oroigarria.

«Academia»k ezer agintzen daunian, argiro esan biarko dau agintza orren zergaitija, ta guk ziatz ziatz begiratuko dogu zegaiti ori, ta egijaren edo zuzenaren edo errazoyaren aurka badator, guretzat agintza ori ezer ezta ixango.

Jokabide honek neurri baten elkarte horretarako ateak itxi zizkion. R.M. Azkuek interes berezia jarri zuen Kirikiño Almansatik Bilbora ekartzeko. Berak lortu zizkion izan zituen lanak, eta ez hori bakarrik, laudorio ugariren artean «Academia»rako ere proposatu zuen. Horrez gainera, Azkuek Kirikiño bere arreba Dianaren senartzat nahi izan zuen, eta, badirudi elkartze honek aurrera ez egiteak Kirikiño piska bat aldendu egin zuela Azkuerengandik.



LANBIDEA

Kirikiño Bilbora itzuli eta berehala Azkuek laguntzailatzat hartu zuen *Euskalzale* aldizkarian. Hemen agertu zuen bere lehenengo lana: «Zerutar bat». Azkueren aginduz, *Ibaizabal* aldizkariaren zuzendari ere izan zen 1902-3etan.

Aldi hartan, Bizkaiko Diputazioak euskarazko eskola bat zuen, eta han ihardun zuen Ebaristok euskara irakasten, Azkueren ordezkari lehenengo, eta bere kabuz gero, hogeitalau urtetan ikasleak euskalduntzen. Irakasle bizkorra izanik, irakasle eta ikasleen arteko lotura sendoa sortzen zuen eta ikasleek asko estimatzen zuten. Haren eskoletatik hainbat ikasle igaro zen, irakaskuntza izan bait zen Kirikiñoen lanik aipagarrienetakoa.

Kirikiñok ardura handia zuen herri hizkera ondo ikasten, esakerak, errefracuak, hiztegia, ipuinak, pasadizuak eta antzekoak biltzen, eta horretarako aukera ezin hobea zuen Mañarian, urtero hilabete bat ematen bait zuen han.

EUSKALTZAINDIA?

Hasieratik bertatik Kirikiño nahikoa kritikoa agertu zen hizkuntz erakunde honekin. Aldez aurretik hartutako jarrera honen arrazoiak ezberdinak izan ziren, nonbait: pertsonalak, agian, alde batetik (uneren bateko Azkuerekiko urruntasuna?), eta idazle trebatu, aske eta arrakastatsuen esperientzia ere bai, noski.



Baiña lanik handiena *Euzkadi* egunkarian egin zuen. Egunkari hau 1913an hasi zen argitaratzen Bilbon, «Euzko Alderdi Jekltzalea»ren ideologiari loturik, eta haren inguruko jendeak bultzatuta. Egunkariaren atasen artean, «Euskal Atala» zeritzanaren zuzendari jarri zuten Kirikiño hasieratik. Ordutik hasi eta, 1928an utzi zuen arte, egunero-egunero argitaratu zituen bere lanak, eta beste askorenak ere zuzendu. *Euzkadi*-n hasi arte izenorde ugari erabili zituen: «Mañari», «Bloa», «Boldro». Baina hemendik aurrera «Kirikiño» izenordearekin agertuko ditu bere lan guztiak.

Aipatu ditugu irakasle eta idazle lanak. Beste hirugarren arlo bat ere azpimarratu behar dugu orain: hizlari. Euskal jaietan eta mitinetan hizlari sutsua zen Kirikiño. Haren eragina maila guztietako jendearengana heltzen zen eta Bizkaian batez ere, euskalzaletasunaren indartzea bere lanaren ondorioa da zati handi batean.

IKASLEEKIN

Lehenago Azkuek izandako Bilboko euskal katedra, Euskaltzainburuaren ordezkari bezala eraman zuen Bustintzak lau urtez, eta gero, beste hogeitan, lanpostuaren jabe kargudun gisara. Ikasleen estimurik minena irabazi zuen lan horretan ere Kirikiñok.



IDAZLANAK

Kirikiñok asko idatzi zuen. Euskal idazleen artean, «Orixe»rekin batera, gehien idatzi duena izango da. Baina Kirikiñok ez zuen libururik argitaratu, haren lanak egunkarietan sakabanatuta daude gehienak. Hain zuzen ere horregatixe, oso ezaguna zen arren, ezezaguna ere gertatu da, egunkarietara eta egunkarietako euskal ataletara idazle-bila doanik gutxi izan ohi bait da, normalean.

EUSKALZALE-rako LANEAN Azkueren lankide fina gertatu zen, hasieratik bertatik Bustintza, maisu handi hari hainbat lanetan lagunduz eta inoiz haren ordezkoetak hartuz. *Euskalzale*-n eman zuen argitara bere lehenengo lana Ebaristok, «Mañiari» izenordearekin (1899).

Kirikiñorena batez ere kazetari-lana da. Gehienetan idazlan laburrak dira, gai arinak landu eta erraz ulertzeko idazkera erabiliz taxutuak. Narrazio labur hauetako batzuk liburuetan bildu izan dira, nahiz eta beste asko oraindik aldizkarietan bakarrik geratu. Hona hemen antologi liburuok:

- 1) Abarrak (Bilbao, 1918), Grijelmoren alargun eta semeen moldiztegian. Guztira 21 ipuin dira hor bildutakoak, euskara arinean idatziak. Hau da bera bizi zela egindako argitalpen bakarra. Izenburuaren zergatia hitzaurrean argituko digu idazleak:

EUZKADI (1913-1928) Bustintza izan zen, urtetan izan ere (1913-1928), egunkari hartako euskal atalaren arduraduna, erretiroa hartu eta Mañariara bildu zen arte. Ondotik Orixek eta Lauaxetak izan zuten egiteko bera.



Su andija egiteko, egun lodija ixetuteko, lenengo abarrari ezarten yako sua, ta onegaz ari gero. Irakurgaitxu oneik be gogo askotan sortu leye euzkeraz irakurteko zaletasuna. Txikijak, meiak, arin-ariñak, errazak, barru gitxidunak, geyenak barre batzuk eragitekuak ixanik, euzkeraz irakurten bape zalia eztanak onakoxiak atsegiñez artu leiz, ta eurok, abarrak lez, bere goguan sua biztu... Irakurgaitxu oneik geyenak jazorikuak dira; batzuk antxiñakuak, nik neure aitari entzunak, eta berak bere aititari; beste batzuk neuk batu dodaz or emen neure aldiyan; beste batzuk neuk asmauta be bai-dira, gustitara.

ABARRAK (1918)

Hain emankorra izandako Kirikiñok ez zuen libururik idatzi; harena, kazetari-lana izan zen, han-hemen aldizkari-egunkarien orrialdeetan sakabanatua, baina beti irakurleko ugaria eta leiala zuela. Lan haien bildumak dira Kirikiñoren liburuak (1918, 1930).



2) *Bigarrengo Abarrak* (Zornotza, 1930). Kirikiño hil eta gero «Euzko Pizkundera» erakundeak egindako argitalpena da, *Jaungoikozale*-ren moldiztegian. 43 ipuinek eta 3 olerkik osotzen dute liburua, ipuinetan aurreko liburukoen hariari jarraitzen diola. Hau da, kontaera laburrak, barregarriak edo pasadizu antzekoak gehienak, eta, jakina, ondo atonduak.

3) *Abarrak... eta abar* (Bilbao, 1966). Gráficas Bilbaon inprimatua. Aita Santi Onaindiaren ardurapean egindako edizio honetan, aipatutako liburu biak, *Abarrak* eta *Bigarren Abarrak* osorik, eta hauekin batera, *Euskalzale* eta *Ibaizabal* aldizkarietan agertutako lanak daude bilduta. Edizio hau, Mañariako herriak Kirikiñori egin zion omenaldia zela eta, egin zen. Liburuan artikulua lau ataletan bereiztuta daude: 1) Euskera, 2) Jakingarriak, 3) Bertsoak eta Izkirimiriak, eta 5) Albistak.



ARGITALPEN APAINAK
Bere literatur lan herritarrak kaleratzean, Kirikiñok eta beronen argitaldarien arretaz zaindu zuten liburuon aurkezpen-modua ere. Hona bi orrialde marrazki apainaz horniturik.

Kirikiñoren ipuinak, sarri argitaratu izan dira euskal aldizkari eta egunkarietan, zatika bada ere. Euskaltzaindiak idazle honen bost ipuin argitara eman zituen bizkaieraz eta gipuzkeraz 1956an, Donostian.

Baina oraindik *Euzkadi* egunkarian 1913tik 1928ra egunero-egunero idatzi zituen lanak falta ditugu. Denak bilduta ditu Xabier Perea Kirikiñozale eta langileak, 16 tomo loditan. Hauetatik batzuk dagoeneko argitaratuta daude Bilbon Labayru Ikastegiak kaleratutako hiru aletan.

4) *Egunekoa* (Bilbao, 1981). Kirikiñok luzaroan atera zuen «Egunekoa» izeneko kolumna *Euzkadi* egunkariaren lehen orrian. Kolumna horien bilduma dugu liburu hau, bertan tratatzen dituen gaiak era askotakoak direlarik: eguneko gai eztabaidagarriak (politika, euskara... jaien ingurukoak (San Martin, San Joan, Gabonak), gure historiako gertaerak, jazoera eta pasadizuak. Azken mota honetako idazlanak dira ugarietak.

EUSKARAREN ETORKIZUNAZ

Kirikiño askotan azaldu zen gure hizkuntzaren etorkizunaz oso kezkatuta, eta euskararen bizitza sozialari buruz hainbat gogoeta ere eskaini zuen. Hona, adibidez, horietarik bat: «Al dana egin bear» (1905).

5) *Edo geuk edo inork ez Euskeraren alde* (Bilbao, 1984). Liburu honetako idazlanak ere denak dira *Euzkadi* egunkaritik hartuak. Lanon gai nagusiak Aberria eta Euskara dira, hain zuzen ere, Kirikiñok gogokoen zituen gaiak. Horregatik esan daiteke liburu honen bitartez idazlearen pentsakeraren muinean sartzen garela.

6) *Guda Nagusia* (1914-1918) (Bilbao, 1989). Izenburuak berak adierazten duenez, liburu honen edukia Guda Nagusiko kronikak dira. Badirudi iritzi orokorra dela Kirikiñok gai arinak eta barregarriak erabili zituela. Iritzi hau zuzena da, baina ez da egia osoa, Bustintzak gai serioak eta Euskal Herritik kanpokoak ere landu bait zituen. Eredu argia dugu lan hau.

Kirikiñok gehien landu zuen literatur mota narrazioa den arren, olerki eta antzerkian ere egin zituen ahalegintxoak.




Aipatu dugu *Bigarren Abarrak* liburuan hiru olerki dagoela. Bertsolariak zirikatzen eta aupatzen ibili zela ere badakigu, bera bertotan aritu zen ala ez ez dakigun arren, Horrez gainera, *Euskaltzale-Bazkunak* argitaratutako kontu-liburuetakoa hainbat kopia bereak dira, esaterako, «Ene aberri polit ederra», «Jagi, jagi», Santa Ageda koplak, eta abar.

Olerkiotako batzuk sarituak ere izan ziren. «Fides» 1901ean Bilbon euskal jaietako Lore-jokoak egin zirenean. «Nai dan lez... Aal dan lez!» olerkiari 1924ean *Gure Herria*-k eraturako kopia-sariketan aipamen berezia eman zioten.

Antzerkiari dagokionez, 1914ean antzeztu zen lehenegoz *Anton Berakatz* bakarriketa. Alfredo Etxaberen Lelo hiru ekitalditako antzerkia euskaratu zuen. Era berean, Jose Elizondoren *Txomin Arraio* komeria, eta Abelino Barriolaren ekitaldi bakarreko *Meza Barriya* bizkaieraz jarri zituen. IDAZKERA

EUSKARAREN OFIZIALTASUNA

Hizkuntza baten ofizialtasunak, irauteko hari eman ziezaiokeen laguntza onaz ohartuta zegoen Kiriñiño, artikulu honetan ikus dezakegunaren arabera: «Euskerea, ele nausitara (ofiziaia)» (1925).



IDAZKERA

Kirikiñoren ardura nagusia bere lanak garaiko irakurleek ulertzea zen. Lehen aipatu ditugun joera «garbizale»koengan hori zen, hain zuzen ere, arazorik handiena, literatura irakurleko minoritario batentzat idaztea. Kirikiñok argi eta garbi dio berak ez duela idazten ehun urte barruko euskaldunentzat, denek ondo erabili eta eskolatuta egongo diren garaikoentzat, bere ingurukoentzat baizik.

Eta gogoan beti herri hori duela, idazlan erraz, labur eta atseginak egiten egin zuen ahaleginik handiena. Honek ez du esan nahi kalitatearen aldetik balio handirik ez dutenik, kontrakoa baino. Kirikiñoren ipuinak laburrak eta, itxura baten, azalekoak diren arren, benetako gertaera eta fantasiaren arteko nahasketa izanik, idazlea narrazioak egiteko dituen ahalmen, etorri eta baliabideei esker maisu-lan txikiak egitera heldu da. Bustintzaren idazlanetan era askotako gaiak aurkituko ditugu: eguneko gaiak, momentuan pil-pilean eta jende guztiaren ahotan zeudenak. Honelakoak sarritan zerbait kontatzeko aitzakia moduan erabiltzen ditu. Ohiturak, jaiak, pasadizuak eta antzekoak ere oso gustokoak zituen.

Hala ere, gairik begikoenak euskara

Euskara eta euskaldunentzat toki eta tratamendu berezia du idazlan guztietan, bizi egiten bait ditu gai horiek.

Edozer idazten duela ere irakurlearengandik oso hurbil jartzen da, askotan hura ere, elkarrizketaren bidez, kontaeran sartzan duelarik.

Idatzien gaiak benetan gertatutakoetan oinarrituta egoteak sinesgarritasun handia ematen die. Horrez gainera elkarrizketetan ageri da batez ere, argi eta zoli, adierazkortasuna eta herri-hizkeraren berezitasunak ondoen bertan erakutsiz.

HERIOTZONDOKO OIHARTZUNAK

Kirikiñok sortutako lanetako hainbat haren heriotzaren ondoren argitara izan dira, aldizkarietatik bilduta. Hona, adibidez, Labayru Ikastegiari esker «Sutondoa» sailean irakurri ahal izan ditugun bi liburu: *Egunekoa* (1981) eta *Guda Nagusia, 1914-1918* (1989).



11

Elkarrizketaren bidea modu ona eta egokia da irakurlearekin komunikazioa lortzeko. Baina erabiliena «umorea» da. Kirikiñok bere idazlanak atsegin eta barregarriak izatea nahi du, irakurlea gustora badago zaletuko delakoan. Esan daiteke idazle honek euskaldunen izaera ondo ezagutzen zuela, eta haienzako moduko umorez betetzen dituela bere lanak. Umorea sortzeko modu ezberdinak erabiliko ditu, baina batez ere kontrastea izango da adierazkorrena; kontrako ezaugarriak dituztenak elkarren ondoan jarriz gehiago azpimarratu eta nabarituko dira idazleak barregarritzat emango dituenak. Batzutan azaleko umore horren azpian gai serioak egongo dira, idazleak apropos barregarri bihurtuak.

Baina Kirikiñok izan zuen arrakastaren oinarririk sendoenetakoa hizkera herrikoa erabiltzea da. Badauka hitz berriak sortzeko joera, erdal usaia izan lezaketen beste batzuen orde, baina zentzuz eta hizkuntzaren legeei jarraituz egingo ditu. Beste batzutan sinonimoak emango ditu hitz ezaguna eta berria elkarren ondoan jarriz.

Hizkuntza adierazkorra darabil, ahozko kontaeretako baliabide ugarirekin. Kirikiñok bere burua baserritartzat erakusten du. Baserritar jatorrikoa, gurasoak eta aitita-amamak baserritarrak zituen, bera ere baserrian jaioa. Idazkeran gozo, alai eta herrikoa ageri da, irudimen handi eta arinekoa, lanak gazigeza eta gatz-ozpin bizi az gozaten zituela, ateraldi zorrotz eta hitz gozoz. Euskara garbia darabil, baina gutxi eskolatuentzat ere ulertteraza. Normalean bizkaiera erabiliko du idazlanetan baina gipuzkeraz eta lapurteraz ere egoki idazten zuen.



KIRIKIÑOAREN EKARRIA EUSKAL KULTURAN

Denek aitortu dute Kirikiñok berak bakarrik irakurle gehiago bereganatu zituela bere aldian jarrera garbizaleari jarraitu zioten beste idazle guztiek batera baino.

Kopuruaren aldetik, «Orixe»rekin batera, euskaraz gehien idatzi duen idazlea da ziur asko, eta, Txomin Agirre kenduta, herrikoiena eta ezagunena. Kirikiñok eragin handia izan zuen bere garaiko gizartean.

Irakasle bezala ikasleak euskaldundu eta euskaltzaletu zituen. 24 urtetan bilbotar asko igaro zen haren eskoletatik, eta euskal herri desberdinak ezagutzera taldeekin irteeraren bat egiteko ohitura zuen. Horrelakoetan zen, dirudienez, atsegin eta alaiena.

LAGUNEKIN

Hil baino hiru urte lehenago, Indalezio Ojanguren argazkilariarekin eta Karlos Elgezua eskultorearekin ageri zaigu Kirikiño argazki honetan.

Idazle bezala, irakurleak bere lanak irakurtzera bultzatzeaz gain, gizarte osoan giro bat sortu zuen. *Euzkadi* egunkariaren euskal atalaren zuzendaria zelarik, berak begiratu ohi zituen idazlan guztiak argitaratu baino lehen. Baina ez hori bakarrik, herrietako idazle askori konplejua eta lotsa kentzen lagundu zion. Esan nahi da, herrietako euskaldun askok uste zutenean idazteko besteko euskararik ez zekitela, berak idaztera bultzatu zituen, barre egingo ote zieten bildurra galdu eraziz. Kirikiño hiltzean euskal kulturarentzat galera handia zela adieraziz artikulu mordoa agertu zen, bai *Euzkadi* egunkarian, baita beste batzutan ere. Hori argituz, idazle ezberdinek ematen dituzten arrazoieta bat, idazle berriengan izan zuen konfidantza eta egin zuen eragile-lana da.



14

Irakurleentzat ere galera handia izan zen, egunero haren idatzia irakurtzera asko hurbildu bait zen, irakurlearekin bat egiteko zuen erraztasunagatik. Haren iritzi, pentsakera eta lanen edukia irakurlearen gogoan berezberetz, erraz eta lasai sartzen ziren, idazkera errazak eta gai interesgarriak umorez beterik erabiltzeak eraginda. Lanok jakitunentzat txalogarri eta beste edonorentzat ulerterraz eta atseginak ziren.

Kazetari bezala ere kontutan hartzekoa dugu. Lan honetan ari dela zeregin nagusia berriak ematea izango da, irakurleak informatzea. Hor daude, esaterako, «Guda Nagusia»ri buruzko kronikak. Euskal gaiak gogokoago baditu ere, ez du mugarik. Gizon eskolatua da, eta munduko berri ere badu, eta hori da, hain zuzen, bere lanetan irakurleei erakutsi nahi izango diena.

Bai jende arruntek, baita idazle eta kulturari jantziago direnek ere, «Irakasle» deituko diote haren maisutasuna azpimarratu nahian. Hauen artean Bernardo M. Garro «Otxolua» aipatuko dugu, adibide argia delakoan.

Gaur egun ere, Bizkaiko literaturaz eta bizkaieraz ezer jakin nahi duenarentzat, ezinbestekoa da Kirikiñoren lanak ezagutzea.



HILETAK
Kirikiñoren hileta-elizkizunera jende-aldra handia bildu zen Mañarian, eta joandakoen artean euskal kulturako izen ezagun asko.

HIL ONDORENGO KIRIKIÑO

Kirikiño 1929an hil zen, haren entzutea eta ospea, ordea, gaur ere bizi-bizirik daude. Haren hiletetara, 1929ko otsailaren 7an, orduko kultur gizon guztiak bildu ziren; oso izen ezagunak izan ziren bertan, berauen artean Resurrección M. Azkue, errespontsoa berak egin bait zuen.

Bestalde, kasualitateak halakoak dira eta, Kirikiñoren heriotzaren berria, eta haren gomutan egindako lanak, egunkarietan Maria Cristina erreginaren heriotzaren berriarekin batera agertuko dira. *Euzkadi* egunkariaren lehenengo orrian, esaterako, berri biak elkarren ondoan agertu ziren.

Hil berritan pilo bat lan idatzi ziren Kirikiñoren heriotzak zekarren galera eta haren merituak goraipatuz. Idazle ezagunenetatik hasi eta herririk txikienetan egingo zitzaizkion meza eta omenaldietara arte.

Idazlerik onenek hitz hunkigarriak eskaini zizkieten: Orixe, Otxolua, Lizardik ... idazlan sentikorrak eta zintzoak argitaratu zituzten Kirikiño hiltzean.

OROITARRIA

Kirikiñok omenaldi bat baino gehiago izan ditu, hil zenetik hona. 1931 n oroitarri hau eskaini zioten sorterriko bere etxean Bilboko Euskaltzaleek (Euzko Gastedijak, Euzkeltzale Bazkunak). Euskaltzaindiak ere egin zion bere omenaldia 1966an.



Harez gero ekintza asko egin dira Kirikiñoren omenez. «Kirikiño Saria» deituko zen literatur lehiaketa eratzea izan zen lehenengoetakoa. Asmoa ona zen eta laguntzaile asko izan zituen, baina diru-ezak pikutara eramane zuen proiektuaren jarraipena.

16

Kirikiño hil eta hirugarren urtera omenaldi bat egin zioten Mañarian, hura jaio eta hil zen etxeetan («Etxanoa» eta «Zumelaga»), plaka bana jarriz. Geroago ere beste batzuk egin dizkiote. 1966an, esaterako, omenaldia zela eta Aita Santi Onaindiak *Abarrak ... eta abar* liburuaren edizioa prestatu zuen. Omenaldi bererako Bixente Larrea eskultoreak fama handia eman dion «Kirikiñoren omenez» eskultura lana egin zuen, 1967an.

Bada, ordea, idazle honen lana eta ospea garrantzitsuak direla frogatzen duen beste ekintza mota bat ere: haren lanen argitalpena. Bustintzak liburu bakarra ikusi zuen argitaratuta bizi zelarik. Gaur egun, badira sei gutxienez, ipuin solteak, edota edizioen bariantea aipatu gabe. Eta, zalantzarik gabe, gehiago ere izango dira, oraindik ez bait dugu idazle honen ekarria osorik ezagutzen.

